# ...eta kitto!

923 zkia.
2015-III-13



# Martxoaren 23an Korrika

Ingelesa 1.go Urtetik aurrera

Irekita dago izena emateko epea

Kids&Us Eibar
C/ Ego-Gain, 8 ·20600 Eibar
T. 688 607 638 · eibar@kidsandus.es






# OINAREN UNITATE BERRIA POLICLINICA GIPUZKOAK EIBARREN DUEN KONTSULTA ZENTROAN

*Podoactiva barne-zola espezializatuen helburua da oinaren patologiak prebenitu eta tratatzea eta kirol-errendimendua hobetzea.*

*Halaber, Podoactivak 3D Scan Sport teknologia esklusiboa dauka, nazioartean patentatua.*

*Bezeroen artean, Podoactivak estatuko 1.000 eliteko kirolari baino gehiago artatzen ditu.*

## PODOACTIVA BARNE-ZOLAK




*20 urte baino gehiagoko esperientzia eta ikerkuntza ultra-arinak eta anatomikoki perfektuak diren barne-zolen garapenean.*

- OINATZEN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
- KIROPODOLOGIA
- HAURRAK
- AZTERKETAK
- PODOACTIVA BARNE-ZOLA PERTSONALIZATUAK
- OIN DIABETIKOAREN UNITATEA
- PODOLOGIA GERIATRIKOA
- PODOACTIVA BERMEA

POLICLINICA GIPUZKOA

**OINAREN UNITATEA**
**UNIDAD DEL PIE**

**943 25 61 00**

www.policlinicagipuzkoa.com

Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefonoa: 943 25 61 00

# POLICLINICA GIPUZKOA

POLICLINICA GIPUZKOA
Telefonoa: 943 00 28 00
www.policlinicagipuzkoa.com

**Podoactiva Espainiako Futbol Selekzioaren eta eliteko kirolari askoren, tartean Eibar K.E.-koen, oinaren zainketa eta oinkada-azterketan espezializatutako taldea da**



Carmen Fernández, Javier Alfaro eta Antonio Martínez podologoak

## POLICLINICA GIPUZKOAK eta PODOACTIVAK Oinaren Unitatea zabaldu dute Eibarko zentroan

Hamar lagunetik zazpik oinei lotutako patologiaren bat jasaten dute. Patologia horiek ondoezak sortzen dituzte ibiltzerakoan, eragin zuzena dute gure hezurduran eta, gehienbat, belaunean; azken hori da gehien sufritzen duen artikulazioa, gure oinarrietan, gure oinetan, sortzen diren malformazio eta arazoen ondorioz. Oinak zaindu eta ikertzeko, Policlinica Gipuzkoa eta Podoactiva nazioarteko marka ospetsuaren eskutik, martxotik aurrera Oinaren Unitate espezifikoa jarri dute martxan eibartarrentzat Policlinica Gipuzkoak Eibarren Ibarkurutze kalean duen kontsulta-zentroan.

Podoactiva futbol, atletismo eta golf federazioen hornitzaile ofiziala da eta goi mailako 1.000 kirolari eta 30.000 paziente baino gehiago artatzen ditu. Javier Alfaro Policlinica Gipuzkoako Oinaren Unitateko koordinatzaileak azaltzen duenez, Podoactiva podologian eta biomekanikan espezializatutako bioteknologia-enpresa da, *“zapaltzeko daukaten modua hobetuz, pertsonen bizikalitatea hobetzen ahalegintzen dena”.* Hori guztiori lortzeko talde multidisziplinarraren ezagutzaz eta esperientziaz baliatzen dira; eta baita berrikuntza teknologikoaz ere, *“pertsonalizatutako diagnostikoa, diseinua eta tratamenduak egiteko”.*

### Barne-zola iraultzaileak

Orain, Donostiara joan beharrik gabe, eibartarrek euren oinkadaren azterketa biomekanikoa egin ahal izango dute, eta baita oinak zaindu ere, puntako teknologia duen zentroan. Oinak zaintzeko ohizko kiropodia-zainketa integralez gain, Unitateak honako zerbitzuak eskaintzen ditu: podologia geriatrikoa, oin diabetikoaren zainketa, martxaren ikerketa biomekanikoa, haur-podologia eta Podoactiva barne-zola pertsonalizatu eta ospetsuak.

Podoactiva barne-zolak material esklusiboarekin eginda daude. Abantailen artean honakoak daude: ohizko barne-zolak baino meheagoak eta erosoagoak dira; amortiguazio ezinhobeak erantzun dinamiko hobea dakar; transpirazio ezinhobea eskaintzen dute; eta zapata transpirableekin bateragarriak dira, arinagoak izateaz gain. Gainera, elastikotasun eta malgutasun-memoria handiagoa daukate, *“material termodeformagarriekin egindakoek baino hobeto eusten diotelako jatorrizko formari”.*

Barne-zola pertsonalizatuak egin aurretik, Oinaren Unitatean azterketa esklusiboa egiten da hiru dimentsiotako eskanerrarekin: 3D Scan Sport Podoactiva. Eskaner hori Podoactivak esklusiboki garatu eta nazioartean patentatutakoa da. Javier Alfarok azaltzen duenez, *“beste eskanerrek normalean oinaren irudia kristal baten gainean zapalduz ateratzen duten bitartean, gure Unitatean oinaren irudi birtuala laserraren bitartez lortzen dugu, tentsioan erregulagarria den mintz elastiko baten bitartez; horrela geometria askoz ere hobea eskuratzen dugu, gero barne-zola pertsonalizatua egiteko”.*

OINAREN UNITATEAK **3 BARNE-ZOLA MOTA** ESKAINTZEN DITU

- **Elite Sport**: Podoactiva Barne-zolen artean izarra. Goi mailako kirolariek erabiltzen dute.
- **Confort Line**: Kalitate handikoak eta aurrekoak baino merkeagoak. Egunerokotasunean erabiltzeko tratamendu egokiak.
- **Elite Woman**: Oin eta takoi-altuera desberdinetarako diseinatuta daude. Ondoezak gutxitzeko eta luzaroan takoidun oinetakoak erabiltzeagatik oinetan, mokorretan, belaunetan eta bizkarrean sor daitezkeen kalteak prebenitzeko eginda daude.

# ASTEAN ESANAK

"Suiziden erdiak bere buruaz beste egin baino hilabete lehenago etxeko medikura joanak ziren. Azken horiek dira suizidio arriskuarekin lotura zuzena duen depresioa tutelatu dezaketenak"

(Pilar Saiz, psikiatra)

"Zelaira banana bat botatzea ez da ekintza arrazista bat, ondo pasatzeko modua baizik. Gervinhori gertatutakoa joko bat besterik ez da"

(Eric Gudde, Feyenoord-eko zuzendari nagusia)

"Abiadura Handiko Trenaren kilometro gehiago daude Espainian Frantzian edo Japonian baino, baina beste bietan baino bost aldiz erabiltzaile gutxiago; hala ere, 8.000 kilometro egingo direla agindu dute. Gainera, Madril-Paris lotura amaitzerakoan, AHT Ezkio-Itxasora joan beharko gara hartzera. Orain dela 80 urte moduan, Ezkiogako Amabirjina ikusteko erromesbideak egongo dira batzuen buruetan?"

(Javier Olaverri, abokatua eta injeniaria)

"Egundoko lehia dago iritzi publikatuen merkatuan: nork lehenago adierazi beharra eta datozen gertakizunen iragarlerik bizkorrena zarela erakutsi beharra. Eta guztia batere umiltasunik gabe; ahoskatzen horren erraza behar luketen \`iruditzen zait´ edo \`badirudi´ formulak bazterruta, alegia"

(Xabier Lasa, kazetaria)

## *Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera*

KLAK!.- Zerbait haustean ateratzen duen hotsa. *"Kakahuesak eta hurrak diferentiak dira: kakahuesak bikixak izeten dira, kalekuak, erdixan klak! egittekuak."*

KLANK!.- Metalezko gauzen bat jaustean edo beste bat jotzean sortzen den hotsa. *"Klank! txingetakin itxi eban atia"*.

# eskutitzak

### URTE BERRIXAKIN BATERA...

Urte berrixakin batera proposamen berrixakin gatoz Jaixak Herrixak Herrixandakotik. Urtiak daramatzagu biltzen herriko jaixeri alternatiba herrikoi, euskaldun, parekide eta parte-hartzaile bat eskaintzeko asmoz. Jai eredu hau eraikitzeko bidian azken aldixan faltan bota dogu herritarren parte hartzia, iritzi ezberdin eta berrixak entzutia. Jaixak danonak diran heñian uste dogu danon artian eraiki biharko genduala gure jai eredua.

Horretarako billera ireki bat egittia pentsau dogu, ahalik eta parte-hartze haundixenakin, Jaixak Herrixak Herrixandakon izaerian inguruan. Honen helburua hemendik aurrerako norabidia zehaztia izango da, danon artian nahi dogun jai eredua eraikitzia, hain zuzen. Hori dela eta, martxoaren 13an hasita hurrengo 18an eta 27an egingo diren bileretara etortzera gonbidatzen zaittuztegu. Billera guztiak 18.00etan Arrate Kultur Elkartian izango dira. Animatu eta parte hartu. Gora jai herrikoiak!!

***J.H.H.***

### NERI ILUSIONATZEN DIT IPURUA TALLARRAK

Azken asteotan herritar eta alderdi politikoek Eibar KE-k aurkeztutako Ipurua Tallarrari egindako kritika guztiak irakurri ditut. Proiektua goitik behera ezagutu gabe, bakarrik kaleratutakoa jakinda eta, oraingoz, baldintzarik gabeko inolako babesik eman gabe, esan behar dut neri ilusionatzen didatela gure hirirako proiektu garrantzitsuak izan daitezkeenak. Azken urteotan Eibarren berri kaskarrak izan dira nagusi: enpresen itxiera, langabezia, populazioaren jaitsiera... Hainbeste maite dugun eta horrelako poztasunak ekarri dizkigun Eibar KE moduko entitate batek etorkizunerako proiektu bat aurkezteak aldeko jarrera ekarri beharko luke hasteko. Badakit krisi ekonomiko larria bizi dugula eta erakundeetako baliabideak mugatuak direla, baina aztertu beharko da proiektuak ekarri dezakeen giza errentagarritasunak justifikatzen duen Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eibarko Udalaren parte-hartzea. Guztiz bidegabea iruditzen zait posibilitate hori Eibarri ukatzea Bilbon, Donostian eta Gasteizen kirol azpiegitura askoz ere garestiagoak bultzatu direnean. Ala bakarrik hiriburuek merezi al dute mota horretako inbertsioak?

Gustatu zait, harmailak handitzeaz gain, formazio eta kultur ikuspegiak kontuan hartzen dituela, guztia kluba zorretan sartu gabe eta kirol emaitzei jarraituz, fase bakoitzak ez baitu hurrengoak baldintzatzen. Gehiago jakin nahiko nuke baina, hasteko, Ipurua Tallarra interesa duten giza agente guztiek sakonki eta baldintzarik gabe eztabaidatu dezaten alde nago.

***Antxon Gutierrez (Eibar KE-ko abonatu eta akzioduna)***

### DATORREN ASTEAN EZ DA ALERIK IZANGO

Aurten San Jose eguna (martxoaren 19a) jai-eguna da eta, eguena denez, datorren asteko zubian ez dugu alerik kaleratuko: beraz, hilaren 20an ez duzue astekaririk izango zuen buzoietan. **Hurrengoa 27an kaleratuko dugu**, baina hor ere beste tarte bat zabalduko da, apirilaren lehen astean Aste Santuko oporrak datozelako. Apirilaren 3an, beraz, ez da alerik izango **eta hurrengoa 10ean** kaleratuko da. Hori dela-eta, tarte horretarako edozein informazio edo zorion-agur kaleratu gura baduzue, hartu itzazue kontuan data horiek. Eskerrik asko.

***Erredakzioa***

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Sheila Lopez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.100 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

## Proiektu onena, Josune Etxanizena

**Mondragon Unibertsitateko ikasturte amaierako euskarazko proiektu onena Josune Etxaniz eibartarrarena izan da.** Arizmendi ikastolako lehen hezkuntzako ikasle etorri barrixak euskeriaren ikaskuntzaren inguruan daken perzepziñuaren inguruan ikastoliarendako egin daben lanak emon detsa sarixa eta, sariketaren laugarren ediziño honetan be, sari bakarra banatu barik bi emotia erabagi dabe antolatzailliak. Aurreko astian egindako ekitaldixan, Etxanizekin batera Ander Elustondok be sarixa hartu eban.



*Josune Etxaniz eibartarra, hirugarrena eskumatik hasita, sariarekin.*

## Trikuharrixen ibilbidia ezagutzen

**Jarduera mordua antolatu dira Korrika Kulturalaren barruan, tartian aurreko zapatuan Trikuharrixen Ibilbidia** ezagutzeko Debanaturako Diego Mendozak gidatuta egin zan mendi urteeria. Parte hartu ebenetako batek kontau deskunez, *"Eibar, Soraluze eta Elgoibarko 35 lagun batu giñan eta Karakate-Irukurutzetan barra-barra daguazen tumuluak, trikuharrixak, zutarrixak eta bestelakuak ikusi genduazen. Nobedadia iaz bere jatorrizko tokira bueltatu zan Arribiribilletako zutarrixa izan zan. Urkiazelaiko txabolan Soraluzeko Mendizale Taldiak eskindutako saldia eta txorizua hartuta amaiera biribilla emon gentsan egunari".*



# autuan

### ANASAGASTI BATZOKIXAN

**Astelehenian 19.00etatik aurrera Iñaki Anasagastik hitzaldixa emongo dau Batzokixan. Betiko lez sarreria libria izango da nahi daben guztiendako. Jeltzaliak monarkiaren gainbeherari buruz egingo dau berba.**



### BATZARRA JUBILAUETAN

**Martitzenian, 19.00etan, Eibar zaharrendako atsegiña dan hirixa izendatzeko asmuarekin Untzagako jubilatu etxian egitten dabizen topaketako azken batzarra, bosgarrena egingo dabe, aurreko batzarretan jasotako eritzi eta bestelakuak laburbiltzen dittuan agirixa onartzeko asmuarekin. Herrittar guztiak gonbidatuta dagoz.**



# Lanbide azoka arrakastatsua

**Gaur itxi dabe eguaztenaz geroztik Armerixa Eskolako patixuan martxan egon dan** #ABIAN Debabarreneko II. Lanbide Azokia. Aurreko ediziñuan lez, oinguan be jende mordua ibilli da azokan, eskualdeko Lanbide Heziketa zentruetako eskintza oparua bertatik bertara ezagutzen.





*Lanbide Heziketa zentruetako eskintza zabala ikusteko aukeria izan zan Armerixa Eskolan.* SILBIA HEERNANDEZ



## Magia-ikuskizuna domekan

**...eta kitto! Euskara Elkarteak, Gurasoak Berbetan programaren barruan, Txoborro maguaren ikuskizuna** antolatu dau domekarako alkartiaren egoitzan (Urkizu, 11 solairuartian). Mintzapraktikako guraso-taldiendako ez eze, juan nahi daben guztiendako zabalik egongo da ekitaldixa. Saiua 11.30xetan hasiko da eta sarreria musutruk izango da. Bestalde, gaur 17.30xetan "Euskerarekiko motibazio eta jarrerak" izenburuko hitzaldixa egingo da euskera alkartian. Bereziki gurasuendako pentsautako hitzaldixa izango da eta, nahi dabenak, entzuten daben bittartian umiak lokal berian egingo dan eskulan-taillarrian lagatzeko aukeria eukiko dau. Eta Gurasuak Berbetan programiaren harira beste ekitaldi bat egin zan aurreko barixakuan: ipuin kontakizun musikatua eskindu eben, Garazi Aizpuruak gitarra eta kantuz lagunduta, eta umiak edarto pasau eben arratsaldia abesten eta dantzatzen.

## Autobus zerbitzu barrixarekin hasarre

**Martxuaren lehen egunian martxan ipiñi zittuen autobus zerbitzu barrixekin hasarre, aldaketiak kaltetu dittuala** pentsatzen daben herrittarrak Diputaziñuan kejia presentatzeko asmua dake eta, horretarako, eurekin bat egin nahi dabene siñadurak jasotzen hasi dira. Euskotren enpresiari datozen hamar urtiotarako zerbitzuaren arduria emoterakuan, *"Diputaziñuak bere interesen alde, eta ez herrittaren alde"* egin dabela salatu dabe eta, *"erabiltzaillien segurtasuna albo batera"* laga dabela gaiñeratuta. Kejen artian, bestiak beste, *"autobusen egoeria desegokixa, ordutegixak ez betetzia eta erabiltzailliak oiñez egin biharreko ibilbidiaren arriskuak"* dagoz.

## Gure Esku-ren "Jostunak"




**Astelehenian 19.00etan "Jostunak. Herritarren borondateak jositako istorio bat" dokumentala** emongo dabe Portalean (areto nagusixan). Bestalde, Gure Esku Dago-ren "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalak etab. saltzen dabiz eta gaur, asteroko moduan, Klub Deportibuan 19.00etatik 20.00etara Deporren egotiaz gain, bixar eguardixan Untzagan salmenta-postua ipiñiko dabe, materixala erosi nahi dabenak erosteko aukeria euki deixan, eta iazko ekaiñian egindako giza-kataiaren irudixak proiektatzeko asmua dakela aurreratu dabe.



## 100 urtiak ospatzen

**Eguaztenian, hillak 11n bete zittuan 100 urtiak erretratuan ikusten dozuen Visi Pujante,** Jose Antonio Castellon zanaren alargunak (behian, erdixan jarritta). Egogain Gerontologia Zentroko lagun eta bihargiñak urtebetetzia ospatzeko jaixa preparau zetsen eta famelixakuak gonbidatu zittuen. Gaiñera, udalak grabadore bolia oparitu zetsan.

## Ekitaldi mordua Emakumiaren Egunian

**Domeka goiz-eguardixan Untzagan egindako photocall eta bestelakuekin gogoratu eben** Emakumiaren Eguna herriko andren alkartiak eta udal ordezkarixak. Aurreko barixakuan, bestalde, andrazkuen aldeko adierazpen instituzionala onartu eben udalian. Bestalde, Amaña herri ikastetxekuak astelehenian ekitaldi berezixarekin ospatu nahi izan eben eguna: klasiak amaittuta, lurrian marraztutako biribillaren barruan jarri eta puntu morea osatu eben eskolako jolastokixan.



*Amaña herri ikastetxeko ekitaldixa.*



## Zamora izan da gatxizen politena

**Ana Moyak irabazi dau Eibarko gatxizenik polittena aukeratzeko lehiaketia** "Zamora" gatxizenarekin. Irabazlia gatxizen horrekin ezagutzen eben gizonaren, Luis Otaduiren loibia da: *"Untzagako zinian atezaiña izan zan eta, sartzeko dirurik ez zekanari pasatzen lagatzen zetsalako, jendiak primerako atezaiña zala esaten eban. Sasoi berian Zamora oso ezaguna zan foballian eta, bixak atezaiñak izanda, berari zor detsa gatxizena".* Zozketa bittartez emondako sarixa, bestalde, Mª Jesus Madinabeitiarendako izan da. Bere proposamena "Etxekalte" izan da.







*Garbiñe Biurrun euskal epailea eta EHUko irakaslea astelehenean Armeria Eskolan izan zen Ikasten-ek antolatutako hitzaldian. Demokraziarako Epaileak elkarteko kidea urtarrilaren 15ean EAEko Auzitegi Nagusiaren lan-arloko aretoaren presidente bilakatu zen eta prozesuak azkartu eta euskararen erabilera sustatzea jarri zituen helburutzat. Berak dioenez, "33 urte dira Euskeraren Legea onartu zela eta, epaiketak teknikoki euskaraz egitea posible bada ere, erresistentzia asko daude, eta muga epaile eta fiskaletan dago. Azken aldian, gainera, jendea kexatu ere ez da egiten. Auzia Euskeraz programa berriaren tresnekin ea zeozer aurreratzea lortzen dugun".*

## GARBIÑE BIURRUN, epailea:

# "Independentzia judiziala giza eskubidea da"

***- Justizia independentea izan daiteke?***

Gaur egungo legearekin erabat independentea ez. Bereziki hori erakusten dute 2008tik honako gertaera batzuk: Auzitegi Gorenekoek salatutako presioak, Nazio Batuen salaketa euskal presoen inguruko neurrien gainean... Baina azken 30 urteetako ibilbidean ez dugu besterik ikusi. Fernandez Bermejo sozialisten ministroak ere argi esan zuen: *"Epaileek ikutuezinak direla uste dute ala?"*. Gainera, zer da independentzia judiziala? Giza eskubidea da, aldarrikapen unibertsalean -eta baita Europakoan eta Espainiako Konstituzioan ere- agertzen dena, guztiok epaitegi independente batean auzipetuak izateko eskubidea bermatzen duena. Hortik ondorioztatzen dugu justizia independentea ez dela epaileen eskubide edo pribilegioa, jendearentzako bermea baizik. Baina, nori dagokio hori bermatzea? Gurean Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiari. Eta hor sortzen da nahasketa: zelan aukeratu eta zernolako konpetentziekin? Auzitegi Gorenak epaileen erregimena kontrolatu nahi izaten du. Organo horrek erabakitzen du nola aukeratu eta 1985ean, Bandresen zuzenketa eta guzti, Lege Organikoa tramitatu zenean, Kongresuak eta Senatuak aukeratuko zituztela onartu zen. Ordutik Konstituzionalerako ere alderdien kuota sistemari jarraitzen zaio. Dugunaren aurka, argi dago justizia independentea teknikoki hobea dela, araudian oinarritzen delako eta, aldi berean, sinesgarritasun handiagoa duelako.

***- Eta gobernuek eragina dute epaitegi erabakietan?***

Nire iritziz, ez nahiko luketen guztia, baina bai behar dena baino gehiago. Kontseilu Nagusian-eta alderdien eragina argi dago. Presioei dagokienez, ez dakit zuzenekoak, baina izan badira. Hori esan zuten orain dela hilabete batzuk Auzitegi Nagusiko 17tik 13k, euren burua presionatuta sentitzen zutela salatu zutenean.

***- Europa mailan gaude arlo horretan?***

Mundu desberdinak dira anglosaxoia eta gurea. Herrialde anglosaxoietan epaileak hasieratik aukeratzen dira, ez gero alderdi sistemari jarraituz. Baina Frantzian eta Italian, esaterako, gure antzera dabiltza.

***- Azken urteotan atzerapausorik bizi izan dituzula esango zenuke?***

Bai, zalantzarik gabe. 2013ra arteko funtzionamenduan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren hogei bokalek liberazio osoa zuten eta berdintasuna zegoen barruan. Baina horko funtzionamendua aldatu dute, Batzorde Iraunkorreko bost kide bakarrik liberatuta, justu gehiengoarekin bat egiten dutenak. Horrela, Kontseilua ahuldu egiten da eta barne demokrazia eztabaidan jartzen da.

**- Hitzaldian zalantzan jarri duzu hemendik aurrera holako askatasunarekin hitz egin ahal izango duzun. Badago lege edo dekreturik onartzeko asmoa bide horretan?**

Iazko apirilean PP-ko gobernua ahalegindu zen horrelako aurreproiektu bat aurrera ateratzen. Hor jasotzen zen hutsegite edo falta moduko bat, non bizirik dauden auziei buruz epaileok ezingo genukeen berbarik egin. Badirudi momentuz asmo hori baztertu egin dutela.

***- Badago herrialde eredugarririk justizia esparruan?***

Ez dago eredu garbirik eta aldeko eta kontrako iritziak aurki genitzake. Lehen esan moduan, mundu anglosaxoiarekin alderatuta (han independentzia bermatuago dago), oinarriak oso ezberdinak dira. Nola aukeratu behar da Kontseilu Nagusia? Beste bi botereetako -exekutiboa eta legegilea- partaideak hautatuak izaten dira Hor, oinarrian, demokrazia printzipioak funtzionatzen du, oposizioa ere bere kuotarekin. Kontzientzia arazoa dago horren atzean, gutxieneko zilegitasun demokratikoa eskatzen duena.

***- Zenbateraino ematen da beste herrialde batzuetako kasuak ikertzearena? Gizarte iraindunaren krimenak, esaterako?***

Hemen Pinochet auziperatu zen, Scilingo ere bai -hau zigortua izan zen-, eta baita Israelek Palestinan eta Txinak Tibeten egindako sarraskiak ere. Baina ez frankismoko kasuak. Eta azken hauek ez hemen bakarrik: Frantzian, Alemanian, Suedian... inon ez dute ezer egin frankismoaren aurka, Maria Servini hasi arte. Garzon eredua izan da planeta osoan, baina Espainiak, Nazioarteko Itunak sinatuta ere, murrizketak egin ditu azken aldian: 2010ean PSOEk erabakita eta 2014an PPk. Azken hauek bertan behera laga zuten Israelen eta Txinaren aurkakoak.

# Zuri esker




## Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
## **Zure eskubidea da**

#ZureEskubidea

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
**Gizarte Politikako Departamentua**
Departamento de Política Social

**www.gipuzkoa.eus**

Kanpainaren kostua: 17.500 €

Euskeraz primeran!

I. GILDA LEHIAKETA

# Gildarik onenak saritu dira

Euskeraz primeran! kanpainaren barruan …eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako I. Gilda-lehiaketak badu irabazlerik. Epaimahaiak emandako saria **Jantaedan**-entzat izan da. Bertako gildaren *"itxura, originaltasuna eta zaporearen arteko oreka"* azpimarratu dute epaimahaikideek, eta erabakia hartzea ez dela erreza izan: *"Maila altua egon da lehiaketan"*. Demaseko lana izan dute Ruben Etxaniz, Mireia Alonso, Josu Gimenez eta Josu Mugerza epaileek, bi egunetan 27 gilda dastatu behar izan dituzte-eta.

Herritarrek ere euren botoa emateko aukera izan dute lehiaketan. Horretarako bozketa-kutxak eta orriak banatu ditugu tabernetan, eta herritarrek ere oso ondo erantzun dute: 2.000 boto inguru jaso ditugu, eta horiek zenbatu eta gero, herritarrei gehien gustatu zaien gilda **Koskor** tabernakoa izan da.

Horrez gainera, botoa eman duten herritarren artean Eibar-Sevilla partidurako bi sarrera zozketatu ditugu eta irabazlea, Caserio tabernan bozkatu zuen **Manolo Cid** izan da.

Lehenengo Gilda-lehiaketak erantzun ona izan du Eibarko tabernarien artean, guztira 27 tabernek eman dute izena. Antolatzaileen izenean, irabazleak zoriontzeaz gainera, eskerrak eman nahi dizkiegu lehiaketan parte hartu duten tabernei, bozkatzen jardun duten herritarrei eta epaimahai-lanetan jardun duten lau adituei.


*Jantaedan*




*Koskor*





*Josu Mugerza, Josu Gimenez, Mireia Alonso eta Ruben Etxaniz Untzagan epaile-lanetan hasi aurretik. Aldameneko irudian, irabazleak eguaztenean jasotako sariekin, Urkizuko iturrian.*

EMILIO AZURMENDI AGIRRE

*"Sagarbitza"*



2. URTEURRENA (2013-III-13)



ZURE IRRIBARRE ETA MAITASUNA
BETIRAKO IZANGO DIRA GURE ARTEAN

# Euskera denon ahotan

*Orain dela aste batzuk ekin zion ...etakitto! Euskara Elkarteak* ***Euskeraz Primeran!*** *kanpainari, herriko denda eta tabernetan euskeraren erabilera bultzatzeko helburuarekin. Tabernetan serbilletak eta azukreak banatu ditugu eta dendetan karameluak. Guztira Eibarko 191 dendak eta 74 tabernak egin dute bat kanpainarekin, eta hori adierazten duen pegatina jarri dute. Horrek esan nahi du, bertan, lehenengo berba euskeraz egiteko konpromisoa hartu dutela. Baina kanpainaren arrakastan herritarrek ere badute zeresana. Kalera jo dugu, eibartarrek kanpainaren inguruan duten iritzia ezagutzeko.*



### Kontxi Iriondo, 60 urte

Ezagutzen dut kanpaina, bai. Komunikabideetan irakurri dut eta pegatinak, azukreak, karameluak... ikusi ditut taberna eta dendetan. Horrelako kanpainak ondo daude euskera lantzeko, zabaltzeko. Normalean euskeraz egiten dut eta kanpainarekin bat egiten duten establezimenduetan gehiago erabiltzen ahalegintzen naiz. Horrelakoak lagungarriak badira ere, lan asko dago oraindik egiteke.



### Enrike Baztarrika, 39 urte

Kanpaina ezagutzen dut. Euskeraren erabilera bultzatzeko sortutako kanpaina dela badakit, eta oso ondo iruditzen zait. Nik gehienetan egiten dut, momentu batzutan erderara jotzen dut (zenbakiak, kopuruak… esan behar ditudanean) baina orokorrean euskeraz egiten saiatzen naiz. Horrelako kanpainak oso ondo datozkigu, gogoratzeko euskera erabili egin behar dugula, gurea delako.



### Irune Orueta, 24 urte

Nik dena egiten dut euskeraz, baina egia da, establezimendu batean euskeraz ez dakitela baldin badakit, kosta egiten zaidala euskeraz egitea. Ohitura kontua da azkenean. Horrelako kanpainak onak dira ohitura horiek aldatzeko, kontzientzia hartzeko.



### Gorka Sarasua, 33 urte

Eibarren euskera gutxi erabiltzen da, etxean gehiago baina kalean oso gutxi. Horregatik dira garrantzitsuak horrelako kanpainak. Ohitura kontua ere badago erabilera baxu horretan, azkenean leku batzuetan eta pertsona batzuekin erderaz egiteko ohitura hartuta dugu eta ez da erraza hori aldatzea. Nik, pegatina duten establezimenduetan, beti egiten dut euskeraz.



### Juan Mari Iriondo, 73 urte

Euskeraz Primeran! kanpaina oso ondo dagoela uste dut, euskera bultzatzeko lagungarria da. Euskeraren alde egiten den guztia ona da. Nik beti egiten dut euskeraz, bai lehenengo berba eta baita ondorengoak ere. Euskera, Eibarren, orain dela urte batzuk baino gehiago erabiltzen dela uste dut.



### Esther Bilbatua, 60 urte

Kanpaina hau euskeraz gehiago berba egiteko pentsatuta dago eta oso ondo ikusten dut. Ni dendaria ere banaiz, eta kanpainarekin bat egin genuenetik igartzen dut jendeak gehiago erabiltzen duela. Nik ez dakit oso ondo euskeraz, baina hala eta guztiz ere saiatzen naiz, ez dit lotsarik ematen. Ohiturak aldatzea zaila da baina ahalegina egin beharra dago.



## KORO ANGOITIA GOIKOETXEA

*2015eko martxoaren 3an hil zen, 61 urterekin*

***"Emazte, ama eta amama ZORAGARRIXA IZAN ZARA.***
***Beti egongo zara gure bihotzetan. Asko maite zaittugu".***



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

*Start Innova lehiaketaren lehenengo saria Eibarren gelditu da Just Do It taldearen eskutik, takoi aldakorra duen zapataren asmakizunarekin*

# Zapatui, La Salle Azitaingo neskak irabazle bihurtu dituen zapata



Laukotea Star Innovan aurkeztutako asmakizunarekin. SHEILA LOPEZ

**La Salle Azitaingo Just Do It taldeak Start Innova, gazteen ekintzaile jarrera bermatzea helburu duen lehiaketa irabazi du.** Haien asmakizuna, Zapatui, sinplea bezain erabilgarria da. Uztai (roska) baten bitartez, zapataren takoia aldatzean datza, hiru garaiera ezberdin izanik: takoi gabekoa, takoi ertaina eta takoia altua nahiz plataforma. **Ainhoa Caceres, Goizane Iglesias, Leire Perez eta Susana Zubiaurrek** saria altxatu zuten aurreko astean EHUko Ibaetako Kanpusean, guraso, irakasle, ikaskide eta beste partehartzaile guztiez inguraturik zeudela. *"Izugarrizko sorpresa izan da. Nahiz eta gure lagunei primerako ideia iruditu, ez genuen uste irabaziko genuenik!"*, aitortu dute.

Burutazioa asmakizun apartak sortzen diren modura heldu zitzaien. Astelehena zen eta asteburu osteko oinetako minak gazteak *"akabatuta"* zituen. Takoi altuak eramateak sortzen duen min hura izan zen, hain zuzen ere, eibartarren proiektu irabazlea inspiratu zuena. *"Ez zen bururatu zitzaigun lehenengo gauza, baina zerbait erabilgarria asmatu nahi genuen. Gainera, moda gustukoa dugu eta, horregatik, zapataren ideia bikaina iruditu zitzaigun; baita oso praktikoa ere"*, azaldu du Susana Zubiaurrek.



Hortik aurrera, ideia hedatzen joan ziren, faseak gainditzen eta, aurkeztu ziren 121 proiektuetatik, Zapatui finalera heldu zen, lehenengo hamarren artean gelditu baitzen. Hortaz, proiektuaren aurkezpena prestatu behar izan zuten eta, horretarako, Just Do It-eko neskek zapataren prototipoa eta webgunea prestatu zuten; hau da, proiektua errealitate bihurtu zuten.

*"Mireiaren laguntza ezinbestekoa izan da azken atal honetan, batik bat, aurkezpena prestatzeko"*, onartu du Ainhoa Caceresek. Mireia Jaureguibarriaz ari da, prozesu honetan lagundu dien irakasleaz. Izan ere, lehiaketaren aurreko edizioa Jaureguibarriaren beste talde batek irabazi zuen, Manolos izenekoa, galdutako giltzak aurkitzeko sistema asmatu zutenak.

**Urduritasunaren finala**

Aurkezpenaren eguna, gogoratzen dute, oso polita izan zen. *"Urduri geunden, batez ere besteen agerpenak ikusi genituenean"*, azaldu du Goizane Iglesiasek. Eta, haien txanda heldu zenean, epai-mahaiaren galderak *"jokoz kanpo"* utzi zituen, Sevillatik eskaera bat izanda nola erantzungo ote zuten galdetu zietenean. *"Furgoneta bat hartu eta Sevillara joango ginateke; joan behar izanez gero, edonora joateko prest gaude eta"*, erantzun zuen Ainhoa Caceres, antzoki guztiaren barreak eraginez. Oraindik gorritzen da pasadizo hura gogoratzean.

Dena dela, badirudi erantzuna epai-mahaiaren gustukoa izan zela. Eta Zapatui zapatak epaimahaikideren batek jantzita eraman izan balitu, asko eskertuko zuela; horrela, agian, sariak banatzerakoan eduki zuen erorketa eragoztea lortuko zuen. *"Uste genuen guri eman behar zigula saria, laugarren saria. Oso gafeak gara eta emakumea lurrera jausi zenez…"*, azaltzen dute irribarretsu neska berritsuek.

Edozein modutan ere, Start Innova lehiaketak bere helburua lortu zuen, irabazleekin behintzat. *"Ez genuen inoiz aukera hau kontuan izan, baina, lehiaketaren ondorioz, proiektu polit bat aurkituz gero, saiatuko gara. Laurak elkarrekin, noski"*, ziurtatu du Leire Perezek. Bitartean, ikasten jarraituko dute, Zapatuiri esker ikasi duten guztia gogoan izanik.




LAURA MARTINENA URIBESALGO

GASTEIZ, 2015-III-6

"Zure izar ederraren izpi agortezinak, gure gogo eta oroitzapenak argitzen betirako"

FALTAN BOTAKO ZAITUGU, LAGUNA. MUSU HANDI BAT.

ZURE KUADRILA



*Urteroko moduan, Saharan bizi diren umeak udan etxean hartzeko kanpaina ipini dute martxan eta Eibar-Sahara Elkartekoak "Oporrak Bakean" proiektuarekin bat egiteko prest dauden harrera-familien bila dabiltza. Saharako kanpamentuetan bizi diren umeak ekainaren amaieran ailegatuko dira eta abuztuaren amaiera aldean bueltatuko dira Tindufera. Bien bitartean, uda hemen igarotzera etorritako neska-mutilak harrera egiten dien familietako kide bat gehiago izango dira eta, besteak beste, euren bizitza baldintza gogorrek eragindako osasun arazoei aurre egiteko laguntasuna jasoko dute. Marian Ircioren familiak Saharako umeei harrera egin dienetako bat da eta euren esperientzia aberasgarriaren berri eman digu.*





*Alabek denbora izan duten bitartean Saharako umeak ekartzen jarraitu du familiak.*

## MARIAN IRCIO, (Eibar-Sahara elkartea):

# "Alabek nahi zuten umea etortzea"

**- Noiz eta nola animatu zineten udan Saharako umeren bat etxean hartzera?**

Gure alaba bien ideia izan zen, Txernobilgo umeren bati harrera egiten zion norbait ezagutzen zuten eta, Saharako umeei harrera egiteko proiektuaren berri izatean, eurek parte hartu nahi zutela esan ziguten. Maria Rosario Arrizabalagak urte mordoa daramatza Ermuan proiektu horren inguruan beharrean eta, umeren bati harrera egitea erabaki genuenean, zuzenean berarengana jo genuen. Hori orain dela hamar bat urte izan zen eta horrela ekarri genuen lehen umea etxera. Programan parte hartzen duten umeek hamabi urte betetzen dituztenera arte daukate uda hemengo familiekin igarotzeko aukera eta guk azkenengoz etortzeko aukera zuen neska hartu genuen etxean.

**- Nolakoa izan zen ume bila joan eta lehen kontaktua?**

Itxaropen eta jakinminez beteta joan ginen. Gurera zetorren neskatilarekin batera beste sei bat ume zetozen uda Ermuko familiekin igarotzeko eta gu Ermura joan ginen Douya jasotzera. Uztailaren 3an ailegatu zen eta nik hilabete osoan beharrean jarraitu behar nuen eta, horregatik, abuztuko oporrak ailegatu bitartean gehienbat alaba biak arduratu ziren berarekin.

**- Errepikatzera animatzeko, esperientzia polita izango zen, ezta?**

Oso polita. Hurrengo urtean beste neska bat hartzeko proposatu zigutenean baiezko biribila eman genuen eta horrela ailegatu zitzaigun Maimona. Oraindik ere Whassap bitartez kontaktuan jarraitzen dugu. Alabek denbora izan zuten bitartean, bizpahiru urtetan jarraitu genuen umeak ekartzen.

**- Umeek Saharan duten bizimoduak gurearekin zerikusi gutxi izango duela kontuan hartuta, nola bizi dute aldaketa umeek?**

Aldaketa erabatekoa da. Kanpamentuetan dendetan, horizontalean bizi dira eta, hona ailegatu eta gure etxeak bertikalean, bata bestearen gainean ikustean harritu egiten dira. Hasieran, eskaileretan behera jaisterakoan, umea barandari ondo helduta, beldurtuta joaten zela gogoratzen dut. Oro har oso ume biziak izaten dira eta azkar ikasten dute berba egiten eta bestelako kontuak. Denetarik jaten dute, etxekoek jaten ditugun gauzak, baina beti ahalegintzen zara han jan ezin dituztenak ematen, arraina, barazkiak, fruta… Urarekin zoratu egiten dira, igerian ikasi eta uretan ibiltzea benetan maite dute.


Funeraria·Ehorztetxe Mugica

EIBAR



Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean




24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi



EIBAR

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13

Orbeako dorreak / 1. solairua

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1) Kardiologia; 2) Zirugia; 3) Dermatologia;
4) Dietetika eta Nutrizioa; 5) Analisi Klinikoak;
6) Ortodontzia; 7) Otorrinolaringologia;
8) Pediatria; 9) Psikiatria; 10) Neurologia;
11) Barne Medikuntza; 12) Radiologia;
13) Urologia; 14) Traumatologia;
15) Koloproktologia; 16) Erizaintza;
17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa;
18) Foto-depilazio Unitatea; 19) Ginekologia;
20) Lagundutako ugalketa (BERRIA)

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

BALATZ C.B.
instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK

## AROTZAK

SUA
SUKALDE ALTZARIAK
AROZTEGIA
*Iparragirre Anaiak*
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ulmar S.L.
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
*EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)*

## ELEKTRIZITATEA

Ego-Gain, 9 ac.
ARGIZTAPENA, KONPONKETAK ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
ibarra
raimonibarra@gmail.com
677 51 24 62
943 20 06 97

943 530 356
688 674 242
669 934 964
electricidad
iparelek s.l.
INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko urgentziak
Juan Gisasola, 4
943 257 869
610 532 922

## ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. Inspeccion Tecnica de Edificios
Eraikinen Ikuskapen Teknikoa E.I.T.
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 30
AJT zihurtasuna s.l.p.
Toribio Etxebarria, 4 behea A

## ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA
PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK
Arragueta 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98
Rosario 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

# Informazio gehiagorako

943 20 67 76

## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**
Superfizie
mota guztietako
**garbiketa** eta
**mantenimendu** zerbitzua
Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioseibar.com Barrena, 21 - 1. F

**TREJO**
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
Garbiketa eta mantenimendua

## IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
**irazabal**
Jose Maria Irazabal, S.L.
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

## ITURGINTZA

Gasa
Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia
**Jardines Iturgintza**
Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929
*Jardiñeta, 11 B*
*fontaneriajardines@euskalnet.net*

K21
**MUGICA**
ITURGINTZA
*Aire Egokitua, Iturgintza,*
*Gas instalazioa, kalefakzioa,*
*petrolio-produktuak, bainuen*
*erreformak eta abar...*
***Hansgrohe*** *kanilen banatzailea*
*Zoru erradiatzailea*
*Eguzki-energia*
Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com
☎ eta faxa: 943 203 903
ERAKUSKETA
Arikitxaneko Zubian

## PINTURAK

DECORACIONES **AIXA**
José Luis Iriondo
Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea
Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

**baglietto**
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

**PINTURAS ARRATE, S.L.**
- Nexa Autocolor
- Pintura industriala
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

**MALVAR PINTURAS**
Sostoa, 16 ac behea
*Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900*
*Mobila. 656 784 396*

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**
PINTURA
OROKORREAN
BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...
*Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-*
*696-565394 / 943-030540*
*victor-fraiz@hotmail.com*

# Urrezko bost domina Ander Romaraterentzat Espainiakoan

**Ez bat, ez bi, ez hiru, ezta lau ere... bost domina irabazi zituen Romaratek Espainiako igeriketa egokituko txapelketan.** Bost probatan hartu zuen parte eta bostak bereganatu zituen eibartarrak: 50 eta 100 bizkarrean eta 50, 100 eta 200 bularrean irabazi zituen domina horiek eta, gainera, 50 bularrean 41"14tan geratu zuen kronoa, Espainiako marka berria ezartzeko. Bestalde, Markel Alberdik Madrilgo zirkuitoan hartu zuen parte, Ion Mujikak Donostian eta Anie Erkiagak Bergaran. Azkenik, Aitzol Arrillagak eta Ander Santosek master mailan debutatu zuten Santurtzin.



*Romarate, erdian, irabazitako urrezko domina batekin.*

# Eibarko Duatloiaren 24. edizioak arrakasta izan zuen zapatuan



*Bigarren zatiaren amaiera.* LEIRE ITURBE

**Eibar Triatloi Taldeak, Gipuzkoako eta Euskadiko Triatloi Federazioekin elkarlanean,** antolatutako XXIV. Eibarko Duatloiak eguzkiaren eta jendearen berotasunaz gozatu zuen, probaren arrakastarako mesedegarri. Horrela, Deltecoko antolatzaileak ere pozik geratu ziren jasotako erantzunarekin. Euskal Herriko zirkuitorako baliagarria zen laugarren proba horretan, gainera, Gipuzkoako duatloi txapela zegoen jokoan sprint distantzian. Lourdes Oiartzabal lezotarra eta Oier Ariznabarreta durangarra nagusitu ziren proban; hori bai, gizonezkoetan Gipuzkoako txapela bigarrenak, Beñat Arnaizek, eraman zuen. Taldeka, bestalde, Antxintxika nagusitu zen gizonezkoetan eta Saltoki emakumezkoen artean.

Gure herriko ordezkariek maila onean jardun zuten: Aitziber Urkiola 4.a izan zen emakumezkoetan, podiumetik ezin gertuago, eta Julen Teran kadete onena izan zen (26.a sailkapen absolutoan). Horiez gain, Pablo Arakistain (juniorretan) eta Iñaki Konde (beteranoen 3 mailan) bigarrenak izan ziren-eta, kadeteetan Hector Gisasola 3.a izan zen.

# Eibarko hirukotea Altitoyko alpinorik ederrenean

**Aurreko asteburuan Pirinioetako Luz Saint Sauveurren jokatu zen mendiko eskiko Altitoy Ternua probaren 8. edizioan** izan ziren Iosu Elejalde, Xabi Bastida eta Igor Azurmendi eibartarrak. Mendikate horretako alpino mailako lasterketa herrikoiena den B ibilbidea burutu zuten, eguraldia lagun antolatzaileek prestatutako mendi-ibilbide ikusgarrietan. Zapatuan, Baregesetik irtenda, 1.300 metroko igoerako ibilbidea burutu zuten Pic de Midi ingurutik; eta domekan, berriz, Luz Ardidenetik abiatuta, 1.200 metro igoerako ibilbide teknikoa osatu zuten.



*Azurmendi, Bastida eta Elejalde lasterketa amaieran.*



*Debabarrenekoak ihesi.*

# Debabarrenekoak ihesean XII. Aiztondo Klasikoan

**Aurreko domekan jokatutako XII. Aiztondo Klasikoan aurpegia erakutsi zuten** Debabarreneko txirrindulariek eta, horrela, taldeko Julen Oria eta Koldo Armendariz ihes eginda ibili ziren, Wolfbikeko Luis Devesarekin. 76 kilometro egin zituzten tropelaren aurretik, liderraren taldea euren bila joan eta helmugatik gertu harrapatu arte. Ihesaldi horretan ia 4 minutuko aldea lortu zuten tropelarekiko.

# Hiru txirlo txapelketa berria

**Azpeitiko Garmendipen hasiko da bihar Gipuzkoako 46. hiru txirlo txapelketa** eta ekainaren 6an izango du azken jardunaldia. Guztira, 10 jardunalditan jokatuko da eta horko zazpigarrenak Asola-Berriko bolatokian izango du hitzordua, maiatzaren 16an. Jardunaldi guztiak arratsaldeko 17.00etan hasiko dira.

# Eibar-Bartzelona: kolore gorri-urdinen jaia biharko egun osorako

**Bihar, 18.00etan, Ipuruan jokatuko den norgehiagokak azkenaldian guztiz ibilbide desberdina daramaten** taldeen arteko lehia hartuko du. Azken jardunaldian lidergoa berreskuratu duen Bartzelona faboritoa da Ipurua lepo beteko den partidurako, eta Eibarrek zaletuen laguntasuna beharko du maila onena emateko. Partiduaren inguruan, gainera, jai-eguna antolatu dute Eibarko Merkatal Gune Irekiak eta herriko ostalariek, egun osoko egitarauarekin: 12.00etatik aurrera, umeendako gaztelu puzgarria (Anbulatorioan) eta tobogana eta gaztelua (Untzagan) ipiniko dira. 13.00etan "The Joselontxo" musika parranda taldeak eta Batukale konpainiak parranda-kalejira kale guztietara zabalduko dute, eta Ustekabek 15.00ak arte jarraituko du kalejira zaletuekin. Behin partidua amaituta, kaleko antzerkia eskainiko dute Lekettioko Deabruek.


*Saul Berjonek ezustearen aukera badagoela esan du asteon egindako adierazpenetan..*

## Unamunzaga-Agirresarobe bihar Astelenan



**Eibarko bikoteak Errenteriako ordezkariak izango ditu aurkari Udaberri Torneoko partiduan bihar 19.15etatik aurrera.** Aurreko asteburuan, bestalde, jubenil mailako partiduetan, Narbaiza-Gaztañaga Deporreko bikoteak 22-14 irabazi zien Errenteriakoei; eta, jubeniletan ere, baina 3. mailan, Arrillaga-Urionabarrenetxea bikotea hemendik 15 egunera jokatuko den finalera heldu da. Eskola mailan, bestalde, Camina-Ferreño bikoteak **(argazkian)** finala galdu zuen Oñatin.

## motzean

### SASKIBALOIA

**Katu-Kalek igoera faseko bigarren garaipena eskuratu zuen Tolosan, TAKE Coach-i 37-46 irabazita. Emaitza horrekin, eibartarrak guztiz sartu dira igotzeko lehiarako borrokan, justu defentsarako jokoa hobetu duen unean. Horrek eman zion garaipena azken jardunaldian, batez ere Iñaki Sanchezen aginduak bikain bete zituen azken laurdenean. Anderson izan zen saskiratzaile onena (17 puntu), Will-iren aurretik (10). Aitor Arakistain, bestalde, baja izango da denboraldi amaierara arte ikasketak direla-eta atzerrira joan delako.**

### ARETO-FOBALLA

**Azken jardunaldiak asko argitu du sailkapena, Durango liderraren atzetik doazen Koskor eta Azkena Kaltonen artekoa banakoarekin amaitu eta gero. Orain bizkaitarrek 9 puntuko tartea zabaldu dute Koskor bigarrenarekiko. Hala ere, badira oraindik jardunaldi interesgarriak, asteburu honetakoa kasu: domekan bost lehenen arteko lauk euren artekoak izango dituzte (10.30etan, Koskor-Esmorga; eta 12.00etan, Azkena Kalton-Durango).**












## *ALBERTO ORTIZ DE ZARATE*

# “Lanbide guztientzako izan daiteke aberasgarria datu publikoen erabilera”

*“Datu irekiak: aukera handia kazetarientzat eta Giza Zientzietako beste profesional batzuentzat” tailerra martxoaren 17an egingo da Portalean. Datu irekiak zer diren eta nolako erabilera duten ezagutzeko aukera izango dugu. Hizlariak Carlos de la Fuente (Alorza.net Work in Progress enpresakoa) eta Alberto Ortiz de Zarate izango dira. Bigarrena Antolaketa Psikologian lizentziatua da, aditua Gobernu irekiaren alorrean, herritarren partehartzearenean, datu irekietan eta berrikuntza publikoan. Gai honi buruz gehiago jakiteko berarekin egon gara.*

***- Zertaz ari gara “datu publikoen irekitzeaz” hitz egiten dugunean?***

Gaur daukagun tenperatura, kalean libre dauden aparkalekuak, udal aurrekontua, herriko farmazien kokapena, Administrazioarekin kontratoa egin duten enpresen zerrenda... Administrazioaren esku dauden datuak dira. Datu hauek herritarrek ezagutu ditzaten zabaltzen badira, orduan datu publikoen irekitzea gertatzen da. Internet eta teknologia berriei esker, informazioa gure gizarteko aktiborik baliotsuena bihurtu da. Administrazio publikoek informazioa etengabe erabiltzen dute euren prozesuak sustatzeko eta zerbitzu publikoak bultzatzeko. Hori dela-eta, gizartearentzat erabilgarria izan daitekeen informazio-kopuru oso handia gordeta daukate.

***- Nolako baldintzak bete behar dituzte datuek irekiak izateko eta norentzako dira erabilgarriak?***

Berez datu bat irekia da edozeinek eskuratu eta erabil dezakeenean, programa informatiko baten bitartez prozesatu daitekeenean eta eguneratuta dagoenean. Datuak era askotakoak izan daitezke: ez da gauza bera zinegotzien soldaten taula bat deskargatzea edo airearen kalitatearen sentsoreen informazioa prozesatzea. Hau da, datu batzuk prozesatzeko ezinbestekoa da profesionalen lana. Bestalde, lanbide guztientzako izan daiteke aberasgarri datu publikoen erabilera. Gainera, gestio publikoari buruzko datu irekiak ezinbestekoak dira gobernuen jarduna kontrolatzeko eta, beraz, gestio publikoa hobetzeko; hau oso baliogarria da kazetari, aktibista eta antolatutako herritarrentzat. Bestalde, ikerketa, berrikuntza eta zerbitzuak hobetzeko eta zerbitzu berriak sortzeko ere oso baliogarriak dira. Trebetasun berri hau ikasteko erronkak XXI. mendeko eboluzioa markatuko du.

***- Zer eskainiko duzue Portaleko tailerrean?***

Datu irekiak nola erabili azalduko dugu, modu dibertigarrian. Beldur gabe etorri; ez da informatika saioa izango. Guztiondako onuragarria da datuen erabilera zentzuduna egitea.



# Kultuko Bertso Astea

**Eguaztenean Kultu tabernan Iñigo Mantzizidor "Mantxi", Julen Zelaieta eta Eli Pagola bertsolariek** eskainitako saio arrakastatsua eta gero, gaur gauean, 21.00etan Kultu tabernan hasiko den bertso-afariarekin biribilduko dute Arrate Kultur Elkartearen martxoko Bertso Astea. Gaurkoan Andoni Egañak eta Unai Iturriagak egingo dute bertsotan, Jon Mikel Mujikak emandako gaiei jarraituta. Egitaraua Hankamotxak Bertso Eskolak eta Kulturalak elkarlanean antolatu dute, 19. Korrika Kulturalaren barruan.



# Erdaldun berrien klub arrakastatsua

**Martzitzenean Portaleko areto nagusian Olatz Pagaldai eskoriatzarrak eskaini zuen** umorezko bakarrizketara gerturatutakoek ondo baino hobeto pasatu zuten arratsaldea eta ikuskizunean antzeztutakoekin barre gogotik egin zuten. Ekitaldia ...eta kitto!-k antolatuta egin zen, 19. Korrika Kulturalaren barruan.




# Topalekun domekara arte

**Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira Arrate Kultur Elkarteak antolatutako erakusketa kolektiboa** domekan itxiko dute, baina ikusi ez duenak oraindik badauka horretarako aukerarik, gaur 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.

# Aste Santurako tailerrak




**Tarteka Sormen Espazioak tailer bi antolatu ditu Aste Santurako. Batetik, antzerki tailerra eskainiko dute,** gazte zein helduentzat, martxoaren 30 eta 31n 17.00etatik 19.00etara. Eta umeentzat Tarteka Marteka tailerra martxoaren 30, 31 eta apirilaren 1ean egingo da, 10.30etatik 12.30etara. Horretan izena ematen duten umeek jolasak, antzerkia, margogintza, kantua, dantza eta eskulanak eginda ederto pasatzeko aukera izango dute. Tailer biak Tartekaren lokalean emango dituzte, Elgeta Kale 1ean (Punto y Aparte aldamenean). Izen-ematea martxoaren 24ra arte egin daiteke, info@tarteka.org helbidera idatzita edo 943249161 telefono zenbakira deituta

# "Arrakala", domekan gaztetxean



**Domekan 17.00etan "Arrakala", Topatu gazte proiektu komunikatiboak eta Bilgune Feministak** elkarlanean sortutako dokumentala proiektatuko dute gaztetxean. Ikusi eta jarraian, Jokin Azpiazu soziologo eta Komite Arroxako kidearekin lan horri buruz berba egiteko aukera egongo da.

# Sostoaren kontzertu sakroa




**Martxoaren 21ean, 20.00etan, meza ostean Karmengo Amaren elizak (Karmelitak) Sostoa abesbatzaren** kontzertu sakroa hartuko du. Abesbatzak urtero eskaini ohi du horrelako emanaldia Erramu Zapatuan, baina aurten hitzordua astebete aurreratu dute eta, beraz, hilaren 21ean izango da kontzertua (eta ez 28an). Emanaldian, eibartarrekin batera, Bilboko Ars Viva abesbatzak abestuko du. Ibilbide luzeko taldea, garai ezberdin bitako estilistikan espezializatu da: batetik, Errenazimentu eta Barrokoko musika profanoan eta, bestetik, gospel eta espiritual beltzean. Zuzendaria Josu Soldevilla musikagile eta organista ezaguna da.

# Pinktones-en kontzertua

**Martxoaren 21ean, 20.30etan, Pinktones taldearen kontzertua hartuko du Coliseoak. Pink Floyd Show izenburuko emanaldia** taldeak martxan duen Steel Breeze biraren barruan antolatu dute eta hiru orduko iraupena izango du. Aski ezagunak diren "The Dark Side of the Moon", "Wish You Were Here" eta "The Wall" moduko kantekin batera, horren ezagunak ez diren beste batzuk entzuteko aukera izango da. Sarrerak 25 euro balio du eta interneten, kutxabank.es helbidean eros daiteke; edo, bestela, Eibarren, Birjiñape, Trinkete, Portalea, Terraza eta Caserio tabernetan; Elgoibarren, Lanbroan; Ermuan, Caperosen; eta Durangon, Gambrinusen.



# laburrak

## ERAKUSKETA UNTZAGAN

**Untzagako jubilatu etxeak, udalak babestuta, erakusketa antolatu du Eibar-Bartzelona taldeen arteko norgehiagokaren harira. Gaur 19.30etan inauguratuko duten erakusketan Imanol Elorzaren oleo-erliebeak eta Mandiola Laguntaldeak bildutako argazkiak egongo dira ikusgai, hilaren 27ra arte eta, egun batzuetako atsedenaldia amaituta, apirilaren 10etik 24ra berriz zabalduko dute, astelehenetik barixakura 19.15etatik 21.15etara eta asteburu eta jaiegunetan, berriz, 12.00etatik 14.00etara.**

## TXISTULARIEN KONTZERTUA

**Usartza txistulari taldeak kontzertua emango du domekan, udaletxeko arkupeetan, 12.30etan hasita. Elena Perezek zuzenduta, egitarau honi jarraituko diote: "Ohorezko Kontrapasa" (Mold: J.I. Ansorena), "Zortziko eta Baltza" (Mold: J.I. Ansorena), "Adiskide Euskorra" (J.I. Ansorena), "Doinu ta Bariazioak" (W.Amadeus Mozart), "Herriko Jaietan" (José Olaizola) eta "Doinu Atseginak" (J.I. Ansorena).**

# "Le Capital" euskerazko azpitituluekin




**Filmazpit euskerazko azpitituludun zinema zabaltzeko Zineuskadi elkarteak finantziatzen** duen programaren eskutik, martxoaren 24an "Le Capital", Costa-Gavrasek zuzendutako filma jatorrizko hizkuntzan, frantsesez, euskerazko azpitituluekin ikusteko aukera egongo da Portalean. Hiru proiekzio antolatu dituzte, 09.00etan, 14.30etan eta 19.00etan eta sarrera doan izango da. Pelikulak Marc Tourneil anbizio handiko bankariaren istorioa kontatzen du eta, horren bitartez, zuzendariak egungo krisi-testuinguruan botere ekonomikoen indarrak politika eta gizarteari ezarri dion mendekotasunaren inguruko hausnarketara bultzatu nahi ditu ikusleak.

# Martxoaren 13tik 25era artekoa

38 ANTZERKI JARDUNALDIAK
EIBAR 2015
Otsaila-Martxoa





## Irene Hernando eibartarra gaur sorterrian antzezle



Gaur Musikomeriarekin "Las Bellas de Easo" antzeztuko dutenen artean Irene Hernando eibartarra izango da. Astekari honetan orain dela urte bi bere ametsa *"musikal handi batean jardutea"* zela esaten zigun eta ez du ibilbide txikia egin ordutik. Epe laburrean ETBko kantu lehiaketa bitan izan zen, "Kantuan" eta "Ama, ¡vótame" saioetan, Eibarko Koro Gaztearekin "Oh Happy Day"-ko finalera heldu eta gero. Gero Peter Pan-en oinarritutako musikalarekin lortu zuen arrakasta, Shakira modura bataiatuta. Antzerki lan hau urrats berria da bere ibilbide artistikoan.



Martxoak 13 | barixakua | 20.30etan | Coliseoan | 55 minutu | 5 euro

**Las Bellas de Easo** (*Asociacion Musikomeria -Gipuzkoa-*)

**Zuzendariak:** Ainhoa Aierbe, Karlos Nguema eta Aintzane Crujeiras/ **Antzezleak:** Irene Hernando, Amaia Eneterreaga, Isabel Garcia, Uxoa Nieto eta Lander Briones

*Musika ikuskizun bizi, gazte eta erakargarrian ezagutuko ditugu bizimoduz aldatzea erabaki duten lau emakume gazteen gorabeherak. Neska horiek konpainia berria osatu, ikuskizun bat sortu eta, argi eta soinu teknikari baten laguntzarekin, mundua ikuspegi desberdinetatik ezagutzera eramango dien bira hasten dute. Irene Hernando Eibarko antzezle, dantzari eta kantaria da protagonistetako bat.*

Martxoak 14 | zapatua | 17.00etan | Coliseoan | 60 minutu | 5 euro

**El Cascanueces** (*Teatro del Temple -Zaragoza-*)

**Zuzendaria:** Carlos Martin / **Antzezleak:** Nestor Amas eta Rafa Blanca
**Dantzaria:** Ingrid Magriña

*Kalitate handiko ikuskizun musikala. Ballet ospetsuari argumentua ematen dion ipuin ederrean oinarritu dira ñabarduraz eta zoiltasunez betetako ikuskizun magikoa sortzeko. Hiru antzezle finen lan zorgarriaz gain, txotxongiloen garrantzia nabarmentzen da lan honetan. Herriko erreferenteak eta jantziak biltzen dituen arte eszenikoen bilduma honekin gozatu egingo dute ume eta helduek.*





Martxoak 15 | domeka | 20.30etan | Unibertsitatean | 70 minutu | 11 euro

**Makinista** (*Markeliñe -Bizkaia-*)

**Zuzendaria:** Markeliñe / **Antzezleak:** Sandra F. Agirre, Itziar Fragua, Jon Koldo Vazquez eta Fernando Barado

*Komedia honetan Markeliñen apustu estetikoa harridura sortzera dago bideratuta eta ikuslegoa hunkitzeko gai diren istorioak sortzera. Ikuslegoarentzat opari honek antzezleen lan trinkoan eta objektuen aldakuntzan du bere eszenan jartzearen indarra. Eszenatokiak esanahia hartuko du proiektatutako irudiekin, argiztapenak azpimarratuz direnen eta daudenen arteko borroka.*

Martxoak 17 | martitzena | 20.30etan | Coliseoan | 90 minutu | 11 euro

**Erdibana** (*Txalo Produkzioak -Gipuzkoa-*)

**Zuzendaria:** Begoña Bilbao
**Antzezleak:** Jose Ramon Soroiz eta Iker Galarza

*Luxu bat. Ama, nagusia eta gaixoa, baina hiltzeko gogorik ez duena; enpresa galtzear dagoen 45 urteko semea eta ama egunero zaintzen duen 38 urteko seme txikia dira antzezlaneko protagonistak. Guzti hori Galarzak eta Soroizek kontatuta. Iker azken urteotako fenomenoa da, telesail eta antzezlan arrakastatsuetan parte hartu duena. Jose Ramonez hitz egiteko letra larriak erabili behar dira: luxu bat.*



# Euskarazko lau lanekin gozatzeko aukera

**ERDIBANA.–** Dialogo biziak ditu, bizitza bera bezain naturalak diren egoerak, eta denon gogoan dauden kontuak aipatzen ditu. Benetako komedia mamitsuetan bezala, pertsonaiak ondo definituta daude, erabateko arketipoak izan gabe. Jose Ramon Soroiz eta Iker Galartza gozatzen ibiliko dira, nor bere rolean maisu.

Martxoak 17

**MAKINISTA.–** Zornotzako kolektiboaren ibilbide luzean testu gehien duen muntaia. Hizlariak gidatzen ditu taula gaineko ekintzak eta koadroak, haien artean hizketaldi mamitsuak tartekatuz: euren bidez aztertuko ditu gizakiak bere sorreratik gaur arte eduki duen jokabidea, hainbat gairen gaineko gogoetak plazaratuta.

Martxoak 15




**BAREALDI MAGIKOA.–** Benetakoa zitekeena eta guztiz ezinezkoa dena elkarren alboan jarrita, hainbat kontu interesgarri aurkezten ditu. Horren guztiaren atzean giza harremanak daude, ikuspegi nahiko surrealistatik hartuak. Harkaitz Canoren euskaratzeak freskotasuna eta dotorezia ematen dizkie dialogo eta bakarrizketa mamitsuei.

Martxoak 25

**GELAJAUZIAK.–** Kukairen lan berriena, dantza tradizionala eta garakidea batzen dituena. Kale ikuskizun gisa planteatu nahi izan dute ikuskizuna eta euskal herri-dantza zaharretan oinarritu dira, horren inguruan gogoeta egiteko eta dantza horiek normalki izan duten eremu naturalari, herriko plazari, garrantzia emanez.

Martxoak 20



**Martxoak 19** | **eguena** | **20.30etan** | **Unibertsitatean** | **60 minutu** | **11 euro**

## Ruz-Bárcenas (*Teatro del Barrio -Madril-*)

**ZUZENDARIA:** Alberto San Juan
**ANTZEZLEAK:** Pedro Casablanc eta Manolo Solo

*Teatro del Barrioren hirugarren lan honetan antzerki-dokumentala eskaintzen digute, Bárcenasek Ruzen aurrean egindako bigarren aitorpenean oinarrituta. Testuak hitzez hitz errepikatzen ditu, baina beste orden batean, Bárcenasek esandakoak. Egileak dokumentazio ugari tartekatzen du tentsioa eta geldiune dramatikoekin nahastuta. Biren arteko norgehiagoka egoera zail baten aurrean.*

**Martxoak 20** | **barixakua** | **20.30etan** | **Coliseoan** | **60 minutu** | **11 euro**

## Gelajauziak (*Kukai -Gipuzkoa-*)

**ZUZENDARIA:** Jon Maya / **DANTZARIAK:** Alain Maya, Eneko Gil, Ibon Huarte, Jon Maya, Urko Mitxelena eta Nerea Vesga / **MUSIKA:** Sabin Bikandi eta Xabier Erkizia / **TESTUAK:** Kirmen Uribe

*Cesc Gelabert koreografoarekin elkarlanean sortzen da dantza ikuskizun hau. Hiru metro eta erdiko altuera duen Nestor Basterretxearen Akelarre totema da ikuskizunaren ardatza, bere inguruan eta txalapartaren soinuaren agindupean sei dantzarik Jauziak eta Soinu Zaharren (Lapurdiko eta Gipuzkoako dantza tradizionalak) arteko harremana garatzeko. Dantzen arteko uztarketa da.*





**Martxoak 22** | **domeka** | **20.30etan** | **Coliseoan** | **95 minutu** | **5 euro**

## III (*Maricastaña -Teatro Universitario de Ourense-*)

**ZUZENDARIA:** Fernando Dacosta / **ANTZEZLEAK:** Raquel Lois, Ines Tormos, Marcos Vazquez, Samuel Cardoso, Abraham Perez, Alex Hermida, Gonzalo Otero, Alicia Fraga, Rebeca Moralejo eta Reyes Mangue

*Shakespeareren Rikardo III.a testua ikuspegi berritzaile batetik aurkezten digute unibertsitate konpainiakoek, atzo, gaur eta betiko galderak eginez eta "boterea" deitzen diogun horri erantzuna emanez. Elkarteen, eskolen eta unibertsitate taldeen ataleko emankizun honetan, beldur egoera orokorra nola sortzen den azaltzen zaigu, guztiak guztietaz susmatzen zuten garaia gureganatuta.*

**Martxoak 24 eta 25** | **martitzena eta eguaztena** | **20.30etan** | **Coliseoan** | **100 minutu** | **11 euro**

## Barealdi magikoa / La Calma mágica (*Tanttaka Teatro -Gipuzkoa-*)

**ZUZENDARIA:** Alfredo Sanzol / **ANTZEZLEAK:** Mireia Gabilondo, Aitziber Garmendia, Jose Kruz Gurrutxaga, Itziar Ituño eta Martxelo Rubio (Sandra Ferrus, Aitor Mazo eta Iñaki Rikarte) / **MUSIKA:** Iñaki Salvador

*Tragikomedia hau bi egunetan eskainiko da: martitzenean gaztelerazko bertsioa izango dugu, Madrilgo Centro Dramatico Nacionalaren eskutik, eta eguaztenean euskarazkoa. Onddo haluzinagarri batzuen eraginez pertsonaia baten ibilaldiak kontatuko dizkigute, lapurtutako ametsak eta errealitatea zelan nahasten diren erakusten digutenak. Aitzakia izango da maitasun, obsesio edo traizioari heltzeko.*



*Martxoak 19an, eguenean abiatuko da 19. Korrika Urepeletik, arratsaldeko 17.00etan eta amaiera, berriz, hilaren 29an (domekan) Bilbon izango da, goizeko 07.30ak baino pixka bat lehenago. Bien bitartean Korrikaren lekukoa herririk herri, eskurik esku joango da urte birik behin egiten den lasterketa, ibilbidea osatzen duten 2.166 kilometroak bete arte. Eibarrera martxoaren 23an, 17.00ak inguruan ailegatuko da, Ermutik sartuta eta herri barruko ibilbidea bete eta jarraian, Soraluzerako bidean agurtuko dugu.*




# Martxoaren 23an dugu Korrika egiteko hitzordua

**Ermuko ordezkariaren eskutik hartuko du Eibarrek Korrikaren lekukoa,** Unibertsitate Laboralaren parean eta, hortik aurrera, Korrikak ibilbide honi jarraituko dio gurean: Otaola Hiribidean aurrera joango dira korrikalariak, handik Ipuruako Eroskirako errepidean gora jarraitzeko; kiroldegi eta foball zelaiaren paretik pasatuta, AEK euskaltegia dagoen Sostoatarreneko errebueltatik behera, Untzagaraino ailegatuko dira; Calbeton zeharkatuta, Bidebarrietatik aurrera joango dira, Tas-Tas pareko errebuelta hartu eta Julian Etxeberriatik jarraitzeko; hortik lasterketak Toribio Etxebarria zeharkatuko du, Klub Deportibo paretik igarota eta, segidan, Untzagara sartuko da, udaletxearen atzeko aldetik; Txoko tabernaren parean berriz ere beherako bidea hartuko dute korrikalariek, baina bigarren bueltan Bidebarrietan behera jarraituko dute, San Andres ikastetxe paretik Urkizuraino jaitsi eta handik Barrena kaleraino joateko; ibilbidearen azken zatia herriko kaleetatik kanpora, Azitainen, autopistako errotondatik aurrera beteko dute, Industrias Mail paretik pasatuta Maltzagaraino.

## Korrika Txikia

Aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, oraingoan ere hainbat ekitaldirekin girotuko dute Korrikaren etorrera martxoaren 23n: 15.00etan herriko ikasleak protagonista dituen Korrika Txikia hasiko da Isasiko La Salle ikastetxe parean eta, lasterketa amaitu eta jarraian, mezua irakurrita jai giroan agurtuko dute Korrika umeek, Eibarko Bizikleta Plazan. Eta, horrekin batera, 19. Korrikari ongi-etorria egiteko 16.00etatik aurrera musika eskaintzen ibiliko dira herriko kaleetan.

## Eibar foball taldea ere #euskahaldun!

Martxoaren 1ean Ipuruak hartu zuen Eibar-Athletic derbia jokatzen hasi baino lehen Korrikaren aldeko aldarria egin zuten Eibar kirol elkartekoek, Korrikaren 19. edizioko mezuarekin pankarta zabalduta, megafoniatik "Denok Korrikara" kanta entzuten zen bitartean. Horrela Eibar kirol elkarteak euskerarekiko bere konpromisoa berretsi nahi izan zuen. Eta martxoaren 23a modu berezian biziko dute klubeko jokalari, teknikariek eta bulegoetako beharginek, Korrikaren lekukoa hartuta antxitxiketan egingo dute eta.



## Kilometro aldaketak Eibarren

**1050 peto zenbakia**
Uni Eibar-Ermua BHI
Armeria Eskola
Hankamotxak Bertso Eskola
Ignazio Zuloaga Institutua
Amañako Jai Batzordea

**1051 peto zenbakia**
Mogel-Isasi BHI
Itzio ikastetxea
Astixa
Iosu, Pana eta Arrateren Lagunak
AEK
ASPE (pelotariak)
Eibar Kirol Elkartea

**1052 peto zenbakia**
Eibar Rugbi Taldea
Ernai
LAB
Eibarko Dendarien Elkartea
Sostoa abesbatza
Arrate Kultur Elkartea
Klub Deportiboa
Ez Dok taberna
Legarreko jai batzordea
Sare
Etxerat

**1053 peto zenbakia**
EHE
EH Bildu
EAJ/PNV
EGI
J.A. Mogel Guraso Elkartea
J.A. Mogel ikastola

**1054 peto zenbakia**
…eta kitto! Euskara Elkartea
Urkizu Guraso Elkartea
Laboral Kutxa
Udaleko Euskara Batzordea
Udaleko beharginak

**1055 peto zenbakia**
Ustekabe Fanfarrea

**1056 peto zenbakia**
Tekniker

**1057 peto zenbakia**
SORALUZE

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, MIKEL, domekan bederatzi urte egingo dozuz-eta. Gurasuen eta, batez be, Paularen partez.



Zorionak, GALDER, gure printzipiak hillaren 19xan lau urte egingo dittu-eta. Txokolatezko muxuak famelixaren partez.



Zorionak, LANDER Fernandez, bixar urtia egingo dozu-eta. Etxekuen eta, batez be, aitxitxa eta amamen partez.



Zorionak, MIKEL, mutil haundi, bixar 11 urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AITANA, hillaren 10ian lau urte bete zenduazelako. Zure lehengusuak Nahia eta Jontxu eta famelixaren partez.



Zorionak, ANE, gure printzesa, domekan hiru urte egingo dozuzelako. Etxekuen eta, batez be, Xabiren partez.



Neska jatorra da eta... beti izango da! Zorionak, IZAR! Zazpi muxu ama, aita, Unai eta Gaizkaren partez.



Zorionak, HARRIET Gallastegi, haraiñegun urtebete egin zenduan-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PELLO, bixar hiru urtetxo beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JOKIN, txapeldun, atzo 11 urte bete zenduazen-eta. Asko maitte zaittugu. Etxekuak



Zorionak, JONE, bixar zortzi urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat aitta eta amaren partez.



Zorionak, EIDER! Oso ondo pasa zure egunian. Patxito haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AMAIA, astelehenian urtetxua bete zenduan-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, IXONEren partez.



Ongi etorri, JON, otsaillaren 27ttik gure artian zagoz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maialenen partez.



Zorionak, ELENE eta izeko RAKEL, domekan zeuon urtebetetzia da-eta. Patxo mordua bixontzako, famelixaren partez.



Ongi etorri, LAIA, hillaren 5etik gure artian zagoz-eta. Etxekuen eta, batez be, EKHIren partez.



Zorionak, UXUE, domekan bost urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, GARAZI Egurrola Mugerza, haraiñegun 3 urte egin zenduazen-eta. Familia guztiaren partez

# zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**14an:** 19.45, 22.30
**15ean:** 20.00
**16an:** 20.30

## "Samba"
*Zuz.:* Eric Yoledeno




**(2 ARETOAN)**
**14an:** 19.45, 22.30
**15ean:** 17.00, 20.00
**16an:** 20.30

## "Negociador"
*Zuz.:* Borja Cobeaga




**(ANTZOKIAN)**
**14an:** 19.45, 22.30
**15ean:** 20.00
**16an:** 20.30

## "Chappie"
*Zuz.:* Neill Blomkamp



**(1 ARETOAN)**
**14an:** 17.00
**15ean:** 17.00

## "El libro de la vida"
*Zuz.:* Jorge Gutierrez




**(2 ARETOAN)**
**14an:** 17.00
**15ean:** 17.00 (antzokian)

## "Dixie..."
*Zuz.:* Ricardo Ramon



# BARIXAKUA 13

## GAZTELEKUA

**16.30.** Mahai-jokoak. Indianokuan.

## HITZALDIA

**17.30.** *"Euskerarekiko motibazio eta jarrerak"* gurasoentzat (bitartean, umeentzat eskulan-tailerra egingo da). Sarrera doan. …eta kitto!-n (Urkizu, 11).

## GURE ESKU DAGO

**19.00/20.00.** "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalak etab. saltzea. Deporren.

## BERTSO AFARIA

**21.00.** Andoni Egaña eta Unai Iturriagarekin. Gai-emailea: Jon Mikel Mujika. Hankamotxak bertso eskolakoek eta Arrate KE-k antolatuta, Korrika Kulturalaren barruan. Kultu tabernan.

## HITZALDIA

**23.00.** Las Tea Party (Eva Gutierrez eta Lorea Argarate). Beleko-n.

# ZAPATUA 14

## UMEENDAKO TAILERRA

**10.00/13.00.** Ume Sortzaileak 4-12 urte bitartekoentzat. Maite Arriagaren estudioan (Bista Eder, 11).

## TAILERRA

**10.30/13.30.** Dantza Afrikarrak. Portalean.

## UMEENDAKO TAILERRA

**11.30/13.00.** Umeendako txapa tailerra. Itzamna-n (B. Sarasketa, 2).

## EIBAR-BARÇA

**12.00/16.00.** Umeendako gaztelu puzgarria anbulatorio parean.
**12.00/16.00.** Umeendako txirrista eta gaztelu puzgarriak. Untzagan.
**13.00.** Eibarko zaletuak batuko dira, Ustekabe fanfarreak girotuta.
**13.00.** The Joselontxo musika parranda taldearekin kalejira.
**13.00.** Batukada, Batukale taldearekin, Ego-Gainen (Slow) hasi eta San Juanetik.
**13.30/15.00.** Ustekabe kalejiran. Untzagan hasita, Eibarko zaletuekin.
**16.00.** Musikaz girotutako kalejira, Untzagatik Ipuruaraino.
**20.30/22.30.** Kale antzerkia herriko kaleetan, Lekeitioko Deabruekin.

## GAZTELEKUA

**17.00.** Mahai-jokoak. Indianokuan.

# DOMEKA 15

## KONTZERTUA

**11.00.** Usartza Txistulari Banda. Untzagan.

## GURASOAK BERBETAN

**11.30.** Txoborro magoaren ikuskizun irekia (mintza-praktikako guraso-talde eta gainontzeko guztientzat). Sarrera doan ...eta kitto!-n (Urkizu, 11).

## EKITALDI POLITIKOA

**12.30.** PSE-EE alderdiaren hautagai zerrendaren aurkezpen publikoa, Voces y Cuerdas eta Punto de Mira taldeen emanaldiekin lagunduta. Untzagan.

## GAZTELEKUA

**17.00.** Mahai-jokoak. Play/Wii. Indianokuan.

## DOKUMENTALA

**17.00.** *"Arrakala"*, Jokin Azpiazurekin. Eibarko Gaztetxian.

## ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20.30.** *"Makinista"* (Markeliñe). 11 euro. Hezkuntza Esparruan.

# ASTELEHENA 16

## DOKUMENTALA

**19.00.** "Jostunak", Gure Esku Dago-ren giza-katearen proiekzioa. Portalean.

## HITZALDIA

**19.00.** *"Monarkiaren gainbehera"*, Iñaki Anasagastirekin. Batzokian.

# MARTITZENA 17

## TAILERRA

**09.00/13.00 eta 16.00/20.00.** *"Datu irekiak: aukera handia kazetarientzat eta Giza Zientzietako beste profesional batzuentzat"*. Hizlariak: Carlos de la Fuente eta Alberto Ortiz de Zarate. Portalean.

## IKASTEN

**18.30.** *"Zahartzea eta dieta"* hitzaldia, Carlota Olaizolarekin. Portalean.

## JOSKINTZA-PUNTO TAILERRA

**17.00 eta 18.30.** Portalean.

## BILERA

**18.30.** Eibarko LOMCE-ri Ez taldearena. Deporren.

## ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20.30.** *"Erdibana"* (Txalo Produkzioak). Coliseoan.

# EGUAZTENA 18

## IKASTEN

**10.30.** Antzerkia. Portalean.
**11.00.** Tertulia-kafea: *"Teknologia eta giza harremanak"*. Untzagako jubilatu etxean.

## EMAKUMEEN AZTARNAK

**11.30.** Proiektuaren saioa: *"Emakume baserritarrak"*. Untzagako jubilatu etxean.



## EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

# EGUENA 19

## ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20.30.** *"Ruz-Barcenas"* (Teatro del Barrio). 11 euro. Hezkuntza Esparruan.

# BARIXAKUA 20

## ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20.30.** *"Gelajauziak"* (Kukai). 11 euro. Coliseoan.

## KONTZERTUA

**23.00.** Etxeko Zapatilak. Beleko tabernan.

# ZAPATUA 21

## JARDUNALDIA

**09.00.** Ondo Egindako Lana II. Jardunaldia. Debabarrena Integra Bat Eginez. Armeria Eskolan.

## LORE AZOKA

**09.00/14.00.** Lore erakusketa eta salmenta.
**10.30.** Lore-landaketa tailerra. Urkizun.

## KONTZERTUA

**20.00.** Sostoaren sakroa, Bilboko Ars Viva-ren parte-hartzearekin. Karmengo Amaren elizan.

## KONTZERTUA

**20.30.** Pink Tones (Pink Floyd Show) taldearena. 25 euro. Coliseoan.

# DOMEKA 22

## TXIRRINDULARITZA

**10.30.** LV. Otxoa Memoriala (kadeteak). Helmuga 12.00etan Urkizun.

## ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20.30.** *"III"* (Maricastaña). 5 euro. Coliseoan.

# ASTELEHENA 23

## 19. KORRIKA

**15.00.** Korrika Txikiaren hasiera, Isasiko La Salle ikastetxe paretik (amaiera Eibarko Bizikleta Plazan).
**16.00.** 19. Korrikari ongi-etorria egiteko musika kaleetan.
**16.45.** Eibarrek Ermuko ordezkariaren eskutik lekukoa hartuko du Unibertsitate Laboralean.

# eguraldia




## erakusketak

**✔ Martxoaren 15era arte**

***EMAKUMEEN EGUNAREN*** inguruko erakusketa. *Topalekuan.*

**✔ Martxoaren 29ra arte**

***"DIALOGOS"*** Lourdes de la Villa eta Rafael Tormo i Cuencaren erakusketa. *Portalean.*

***"EIBAR INDUSTRIALA 2014"*** erakusketa. *Armagintzaren Museoan (Portalean).*

***JOSE LUIS IRIGOIENEN*** argazki erakusketa. *Topalekuan.*

**✔ Martxoaren 31ra arte**

***MIGUEL DAVIDEN*** argazki erakusketa. *El Ambigún.*

***PATXI JATOREN*** argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

***RSFZ ELKARTEKOEN*** argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

## hildakoak

- **Koro Angoitia Goikoetxea.** 61 urte. 2015-III-3.
- **Luis Martinez Gorostarzu.** 90 urte. 2015-III-4.
- **Mª Esther Zubiaurre Izagirre.** 92 urte. 2015-III-5.
- **Mª Rosa Arginzoniz Gorrotxategi.** 79 urte. 2015-III-5.
- **Agripina Luaces Matanzas.** 87 urte. 2015-III-6.
- **Felisa Urriolabeitia Beristain.** 81 urte. 2015-III-6.
- **Mª Carmen Lorizate Ormaetxea.** 91 urte. 2015-III-6.
- **Manuela Toston Santiago.** 97 urte. 2015-III-6.
- **Pura Alvarez Alvarez.** 92 urte. 2015-III-6.
- **Tomas Osoro Elkoro.** 86 urte. 2015-III-8.
- **Antonio Zabala Lazkano.** 92 urte. 2015-III-9.
- **Martin Ramos Ruiz.** 66 urte. 2015-III-10.

## jaiotakoak

- **Alejandro Nazareno Soliz.** 2015-II-23.
- **Nile Arrizabalaga Arakistain.** 2015-III-1.
- **Xanet Arrizabalaga Arakistain.** 2015-III-1.
- **Martin Baztarrika Agirre.** 2015-III-1.
- **Asier Telleria Garcia.** 2015-III-2.
- **Ossama Norddine Mirat.** 2015-III-3.
- **Laia Castro Puyol.** 2015-III-5.
- **Ander Barea Ruiz.** 2015-III-6.
- **Ayan Shrestha.** 2015-III-6.
- **Iare Azpiazu Duñabeitia.** 2015-III-6.
- **Luken Luna Gisasola.** 2015-III-7.

## farmaziak

**✔ barixakua 13**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

**✔ zapatua 14**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

**✔ domeka 15**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

**✔ astelehena 16**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

**✔ martitzena 17**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

**✔ eguaztena 18**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

**✔ eguena 19**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**✔ barixakua 20**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

**✔ zapatua 21**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**✔ domeka 22**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

**✔ astelehena 23**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

**✔ martitzena 24**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

**✔ eguaztena 25**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

**✔ eguena 26**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

**✔ barixakua 27**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

**GAUEZ BETI -2015EAN-**
**Elorza (J. Gisasola, 18)**

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | | 5 | | | 8 | 3 | | |
| 6 | | | 5 | | | 2 | | |
| | 1 | | | | | | | 4 |
| | 8 | 4 | | 1 | 5 | 9 | | |
| | | | | | | | | |
| | | 9 | 7 | 3 | | 1 | 2 | |
| 8 | | | | | | | 9 | |
| | | 1 | | | 6 | | | 3 |
| | | 6 | 1 | | | 4 | | 2 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 5 | 1 | 8 | 2 | 9 | 7 | 3 | 6 |
| 8 | 3 | 9 | 7 | 5 | 6 | 2 | 1 | 4 |
| 2 | 7 | 6 | 4 | 1 | 3 | 5 | 9 | 8 |
| 5 | 6 | 8 | 2 | 3 | 4 | 9 | 7 | 1 |
| 7 | 9 | 4 | 5 | 6 | 1 | 3 | 8 | 2 |
| 3 | 1 | 2 | 9 | 8 | 7 | 6 | 4 | 5 |
| 1 | 4 | 5 | 3 | 9 | 2 | 8 | 6 | 7 |
| 6 | 8 | 3 | 1 | 7 | 5 | 4 | 2 | 9 |
| 9 | 2 | 7 | 6 | 4 | 8 | 1 | 5 | 3 |

AURREKOEN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak........................*112*
Pegora .............................*010*
Udaletxea..........*943 70 84 00*
Portalea.............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa......*943 20 15 25*
Mankomunitatea *943 70 07 99*
Debegesa ..........*943 82 01 10*
KIUB .................*943 20 38 43*
Epaitegia ...........*943 03 34 00*
Iberdrola ...........*901 20 20 20*
Naturgas............*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak ..*943 46 46 22*
Gurutze Gorria ...*943 22 22 22*
Mendaro osp.......*943 03 28 00*
Anbulategia .......*943 03 25 00*
Torrekua ...........*943 03 26 50*
Errepideak.........*902 11 20 88*
Ertzaintza ..........*943 53 17 00*
Eusko Tren ........*902 54 32 10*
Pesa..................*902 10 12 10*
Taxiak ...............*943 20 30 71*
........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon.....*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen ..*650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR**: Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

# 1. Etxebizitza

## 1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibar erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Trasteroa eta igogailua. 2009ko eraikina. Oso argitsua. Tel. 652-757925.
– Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta despentsa. Garajea eta trasteroa barne. Dena kanpora begira. Jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 617-976263.

## 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 652-532589.
– Eibarko mutil batek pisua edo buhardila hartuko luke alokairuan (1/2 lagunentzako). Tel. 665-705978.
– Pisua alokagai Jardiñeta kalean, Sakunen. 2 logela. 100 m2. Gasa eta beheko suarekin. Berriztua. Lursail txiki batekin. Kanpora begira, bista ederrekin eta eguzkitsua. Tel. 943-254948 eta 651-678454.
– Pisua alokagai Ermua erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 648-643715.
– Pisua alokagai Ermua erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 648-643715.
– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-441517 eta 673-436363.
– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-197217.
– Logela behar da Eibarren erroldatze eskubidearekin. Tel. 632-878150.

# 2. Motorra

## 2.1. Salgai

– Taxi-lizentzia salgai Elgoibarren. Bezeroen zerrenda eta autoarekin. Tel. 686-234718.
– Taxi-lizentzia saltzen da Eibarren jubilazioarengatik. Tel. 696-966865.

# 3. Lokalak

## 3.1. Salgai

– Taberna traspasatzen da Eibar erdialdeko oinezkoendako kalean. Tel. 645-186309. Lorena.

## 3.2. Errentan

– Garaje itxia hartuko nuke errentan Barrena eta Karmen inguruan. Tel. 676-105492.
– Garajea alokagai Estaziño kalean (13. zenbakian). Tel. 943-203741.
– Lokala alokatzen dut. Hainbat jarduetarako aproposa: bulegoetarako, klaseak emateko... 30 m². Tel. 615-700184.

# 4. Lana

## 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 602-846244.
– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 687-362773.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-454417.
– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-705406.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-448980.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 631-089006.
– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka edo jornada erdiz. Tel. 632-700803.
– Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. Tel. 632-776986 eta 602-860428.
– Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko. Esperientzia handia. Tel. 602-860428.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsaldez eta asteburuetan egun osoan ere. Tel. 689-391261.
– Neska arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara eramateko. Esperientzia. Tel. 639-611454.
– Geriatria tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 652-532589.
– Emakume eibartarra eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 649-258913.
– Gizonezkoa eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-974442.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 695-804895.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-651098.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 680-973549.
– Neska euskalduna eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 619-041821.
– Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 636-247429.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean. Erreferentziak. Berehala hasteko moduan. Tel. 652-587259 eta 632-966192.
– Emakumea eskaintzen da gauez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna. Tel. 682-277198.
– Emakumea eskaintzen da gauez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna. Tel. 697-754174.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Gidatzeko karnetarekin. Erreferentziak. Tel. 689-571882.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-975260.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko... Tel. 688-682398.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak Tel. 650-513412.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsaldez, asteburuetan... Esperientzia. Tel. 608-886701.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko, nagusiak zaintzeko... Tel. 636-841158.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
– Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak zaintzeko eta saltzaile jarduteko. Tel. 631-505705.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 658-907415.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 660-511781. Elena.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 674-747065.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 631-896104.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka zein gauez. Tel. 632-423986.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna zein orduka. Tel. 602-805363.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna zein orduka. Tel. 626-407923.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 655-677035.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 602-052260.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 626-722291.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 673-436363.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 672-442318.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 633-244397.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 628-665395.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 660-290237.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 603-743240.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-767696.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 602-377184.

## 4.2. Langile bila

– Sukaldari-laguntzaile euskalduna behar da Eibarko taberna baterako. Tel. 606-110693.
– Sukaldariak eta kamareroa behar dira Eibarko jatetxe berri baterako. Bidali curriculuma: eibarkafe@gmail.com
– Kamareroa eta sukaldaria behar dira. Bidali curriculuma argazkiarekin: camareros12345@gmail.com
– Neska euskalduna behar da interna Elgoibarko baserri batean nagusia zaintzeko. Autoarekin hobe. Tel. 655-715544.
– Sukaldari-laguntzailea behar da Eibarko taberna batean. Esperientzia. Tel. 661-700440.

# 5. Irakaskuntza

## 5.2. Eskaintzak

– Gitarra klase partikularrak ematen dira: gitarra elektrikoa, akustikoa, klasikoa eta baxua. Tel. 665-732640. Aitor.
– Euskerazko klaseak ematen ditut. Azterketetarako prestaketa, EGA, HABEren mailak, Osakidetzarako perfilak... Tel. 620-608065.

# 6. Denetarik

## 6.1. Salgai

– Logela osoa salgai. 2 ohe (1'05eko bakoitza), buru tapizatuarekin, armairua eta 2 mesilla. 250 euro. Tel. 665-733483. Arrate.
– Janjela salgai. Armairua, mahai handia eta 6 jarleku tapizatuak. Egoera onean. 190 euro. Tel. 665-733483. Arrate.
– Oherako garabi manuala, bere arnesarekin, salgai. 250 euro. Tel. 943-752480 eta 616-533796.

## 6.3. Galdu/Aurkitu

– Armagin kalea, kanposantu ondoan, familiako ondasunak (eraztunak etab.) galdu ditut. Norbaitek aurkitu baditu, deitu mesedez. Tel. 632-997557.
– Urrezko eraztuna, harri zuriarekin, galdu nuen hilaren 18an (eguaztena) Anbulatorioa eta Gratzinaren artean. Balio sentimental handia. Tel. 677-161259. Olatz.



iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarki laburren ataria



ZURE BIGARREN LEIAR PROGRESIBOAK

# OPARI

VARILUX®

ERABATEKO BABESA

www.multiopticasgipuzkoa.com

"Dena begietatik sartzen delako, bizi ezazu desberdintasuna Varilux-ekin"

R.P.S. Nº 149/10 I.L.G.

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR
ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2 • Tel. 943 20 05 22 • EIBAR

multiópticas
lehena zerbitzu optikoetan

# Aste Santuko mitxeletak

**NORENTZAT**
HH2 - LH2ko haurrentzat
(biak barne)

**NOIZ**
Apirilaren 7tik 10era

**ORDUTEGIA**
09.00etatik 12.30era
Zaintzarekin: 07.30etik 12.30era

**EKINTZAK**
Jolasak, eskulanak, tailerrak, elkar ezagutu...

**PREZIOA**
48€ / Zaintza Zerbitzuarekin: 65€

**IZEN EMATEA**
Martxoaren 2tik 27ra
Telefonoz edo emailez

Zatoz ongi pasatzera eta lagun berriak ezagutzera!

ele

haurren aisialdia eta askoz gehiago

Telefonoak: 943 12 04 39 / 608 465 865 / 628 598 359 aisiamitxeleta@gmail.com

bista eder
clinica dental - hortz klinika

# Asko dira
## gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



innovadental
clínicas

**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

www.**innovadentalclinicas**.com

RPS: 53/13

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

bista eder
clinica dental - hortz klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

innovadental [ Azpeitia
clínica dental - hortz klinika ]

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**